

Altzako Ipuin Lehiaketa 2009-12-03

Antolatzailea: Bizarrain Elkarte

Ipuina: "Martintxo". 2. Saria

Egilea: Irati del Pozo (Altza BHI 3C)

MARTINTXO

Beti entzun diot nire amari esaten: “Irati,nahi dut zuk gauza bat ikastea,baina, mesedez,ez ahaztu inoiz. bizi garen mundu honetan pertsona guztientzat lekua badago...”

Eta ez zuen ezer gehiago esaten.Baina,nik,Martintxo ezagutu ondoren,banekien zer esan nahi zidan nire amak.

Historia kontatuko dizuet,hain da polita...eta hain da gozoa... gustatuko zaizue eta ,seguru, historia hau kontatu ondoren noizbait Martintxorekin topo egingo duzuela, kaleren batean edo atarian edo zuen ikasgelan.Eta hau gertatzen bada seguru nirekin gogoratuko zarela.

Martintxok hamar urte zeukan. Nire leihotik bere etxea ikus dezaket, Leosiñeta kalean.Bere aitak Peru izena zuen eta bere amak Katalina zuen izena eta etxean lan egiten zuen,bere seme-alabak zaindu egiten zituen.Martintxok hiru anai-arreba zituen,Xabier, Itziar eta Andoni.Bera ordu gehienak bere logelan ematen zituen jolasean.

Nik hamalau urte neukan,Institutura ikastera joaten nintzen eta oso ordu gutxi nuen ikasteko, Altzako Polikiroldegian entrenatzen bainuen astelehenetik ostiralera bitartean eguneko hiru ordu. Gure amak eta Martintxorenak elkar ezagutzen zuten,sarritan kalean topo egiten baitzuten,halakoetan berriketan ematen zuten denbora tartetxo bat.

Goizero zortziak laurden gutxitan jaikitzen nintzen eta zerealak,fruta eta esnea gosaltzera joan aurretik astia hartzen nuen leihotik begira egoteko.Batzutan Martintxo hantxe ikusten nuen,hala ere ez zidan inoiz begiratzen.Bazirudien beti bere gauzetan sartuta zegoela.

Egun batean Instituturako bidean Martintxo bere gurasoekin ikusi nuen.Eskolara zihoazen,motxila eramateaz gainera bizkotxoa eta gozokiak zeramatzan.Bere urtemuga izango ote da? – pentsatu nuen. Eguna,betiko errutinaren gurpilean pasa nuen,lehenengo orduan, Matematika,bigarrenean Ingurunea,hirugarrenean Ingelera... egun osoan ezer berezirik ez. Etxera iritsi nintzenean Martintxo ikusi nuen beren amarekin atarira iristen ari zirelarik.Bere ama agurtu nuen eta galdetu egin nion:

- Gaur Martintxoren urtebetetzea al da?
- Bai, hamaika urte betetzen ditu.Berak bere lagunekin ospatu egin du.Eskola berezi batetara doa,Martintxo autista da eta. Lagun guztien artean opari polit bat egin diote. Bakoitzak marrazki bat egin dio eta gero irakasleak marrazki guztiak batera lotu ditu. Begira, bildumak istorio bat osatzen du.- esan zidan amak
- Martintxo, erakutsi egingo al didazu, mesedez, oparitu dizutena? Ikusi nahi dut!
– erantsi nuen nik.
-

Baina Martintxok begiratu ere ez zidan egiten,ezta erantzun ere.Etxera joan nintzenean buruan ideia bat nerabilen ea zer opari egin ote niezaiokeen Martintxori.

Gure amak afaltzeko fideo sopa eta tortila prestatu zuen.Nire ahizpak fideoak bukaerarako uzten zituen eta, fideoak erabilia marrazkiak egitea gustatzen zitzaion.Azkeneko koilarakada bukatzen ari nintzela,nire ahizpak bere irudia bukatu zuela ikusi nuen, plater osoa betetzen

zuen tximeleta handi eta ederra zen, antenak plateretik ateratzen zitzaizkion. Hori ikusitako esan nuen:

- Badakit! Pinpilinpauza handi eta polit bat egingo dut, kolore asko izango dituen eta antena ikusgarriekin, Martintxok bere leihotik ikus dezan.

Hurrengo egunean, seietan iratzargailua jarri nuen. Kartulina batzuk hartu eta pinpilinpauza baten silueta marrazteari ekin nion, gero moztu egin nuen. Txarol papera erabilita koloretako zirkuluak egin nituen eta pinpilinpauzaren hegoetan itsatsi nituen.

Antenak egiteko, b kartoia borobil hartu nituen, gure amak birziklatzeko dituen komuneko paperekin. Horrela, bost hodi itsatsi nituen antena bakoitzarentzat eta bi antena handi atera zitzaizkidan. Egiteko begiak bakarrik falta zitzaizkidan. Orduan gure aitak tresna-kutxan bi bonbila gordetzen zituela gogoratu nintzen. Gauean piztuko ziren bola zuriak ziren.

Pinpilinpauza egina zegoen, Martintxok ikustea falta zen bakarrik.

Arratsaldeko zazpitan nire motxila eta hegala hartuta entrenatzera joan nintzen Alzako polikiroldegira. Ondo meriendatu nuen uretan sartu aurretik, platanoa eta txokolate puska bat, indarrak behar nituen fundamentuzko entrenamendua egin ahal izateko. Aita nire zain zegoen kanpoan etxera elkarrekin joateko. Auzo osoa itzalita zegoela ikusi genuen. Altza Pasealekua, Anbulategia, San Martzial Eliza eta Elizasu kalea... dena ilunpetan. Zerbaitek argia itzali zuen. Jendea kandelak eta linternak pizten hasi zen. Bat-batean konturatu nintzen:

- Pinpilinpauza! Pinpilinpauza hartzera joan behar naiz! – esan nuen

Amari linterna bat eskatu, korrika batean eskailerak igo eta nire logelan sartu nintzen.

Tximeletaren begiak linternarekin enfokatu nituen eta bi izarrek gau erdian ziruditen. Nire leihoa ireki nuen eta nire eskuetan eduki nuen oihukatzen nuen bitartean:

- Martintxo! Martintxo!

Berehala ohartu nintzen Martintxo bere gelara zihoala. Leioha ireki zuenean bere amari esan zion:

- Ama! Ama! Pinpilinpauza handi bat niri deika ari zait! Deika ari zait !

Bere ama liluratuta zegoen, begiratu eta irri egin zidan hunkituta.

Hurrengo egunean, zortziak laurden gutxitan, beti bezala altxatu nintzen, leioha atera eta nire begiek ikusi zuten nola, Martintxoren logelan, ohea leiohaaren ondoan zegoen. Ohean Martintxo zegoen maindoretan uzkurtuta eta, bere oheburutik hauxe jartzen zuen orri bat agertzen zen.

“ Eskerrik asko, Martintxo deitzen naiz”